Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2021eko irailaren 1a, asteazkena — 167 — Miércoles, a 1 de septiembre de 2021

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## HONDARRIBIKO UDALA

*Tokiko ostalaritza sektorearen ekonomia berpizteko Covid-19ak eragindako krisiaren ondorioei aurre egiteko dirulaguntzen arau berezietan aldaketak.*

2021eko uztailaren 26ko 2190/2021 zenbakiko Dekretuaren bidez, beraien kontura lan egiten duten langileei edo autonomoei, Ondasun Erkidegoei, Sozietate Zibilei, nortasun juridikorik gabeko unitate ekonomikoa edo ondare banandua osatzen duten pertsona fisiko edo juridikoen taldeei, eta beraien jarduera ostalaritza den enpresei, zerga egoitza eta egoitza soziala Hondarribian izanik, laguntzak zuzenean emateko arau bereziak onartu ziren, beraien jarduerari eragin badie 926/2020 Errege Dekretuan eta azaroaren 3ko 956/2020 Errege Dekretuan –2021eko maiatzaren 9a arte alarma egoera luzatzeari buruzkoan– hartutako neurriek.

Arau horiek argitaratu dira 2021eko abuztuaren 4ko 147 zenbakiko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Ikusi da beharrezkoa dela dirulaguntza horien irismena aldatzea, udalak eskaintzen dituen laguntzak Hondarribian establezimendua duten eta autonomoen eta mikroenpresen egoera berean dauden enpresa guztietara iristeko.

Zehazki, asmoa da laguntza iristea ez bakarrik beraien kontura lan egiten duten pertsona edo autonomo eta enpresetara, 2020ko abuztutik ixteko agindua jaso duten diskoteka eta ostalaritza arloko zerbitzu eta establezimenduetara eta haien jarduerak 671, 672, 673, 676, 681, 682, 683, 684, 686, 687 taldeetan sailkatuta daudenetara, baizik eta haien jarduerak «Jatetxearloko beste elikadura-zerbitzu batzuk» 677.9 taldean eta «Hotelez kanpoko turismo-ostatuak» 685 taldean sailkatuta dituzten haietara ere iritsi nahi da.

Horregatik guztiagatik Alkatetza honek

EBATZI DU

*Lehenengoa.* Onartzea Tokiko ostalaritza sektorearen ekonomia berpizteko Covid-19 eragindako krisiaren ondorioei aurre egiteko dirulaguntzak emateko arauen aldaketa.

Hauek dira aldaketak:

1. 3. artikulua aldatzea, «Pertsona eta erakunde onuradunak», onuradun izan ahalko direlarik haien jarduerak «Jatetxearloko beste elikadura-zerbitzu batzuk» 677.9 taldean eta «Hotelez kanpoko turismo-ostatuak» 685 taldean sailkatuta dituzten eta beraien kontura lan egiten duten pertsonak eta autonomoak eta enpresak.

*Bigarren.* Aldaketa hauek argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren web orrian, bai eta Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean ere.

*Hirugarren.* Ebazpen honen berri ematea Udalbatzari, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985

## AYUNTAMIENTO DE HONDARRIBIA

*Modificación de las normas especiales reguladoras de las subvenciones destinadas a la reactivación económica local en el sector de la hostelería para hacer frente a las consecuencias derivadas del impacto generado por la crisis producida por la Covid-19.*

Mediante Decreto núm. 2190/2021 de 26 de julio de 2021, se aprobaron las normas especiales reguladoras para la concesión directa de ayudas a las personas trabajadoras por cuenta propia o autónomas, las Comunidades de Bienes, Sociedades Civiles, agrupaciones de personas físicas o jurídicas que conformen una unidad económica o patrimonio separado sin personalidad jurídica y, las empresas cuya actividad sea la hostelería con domicilio tributario y social en Hondarribia, y cuya actividad se haya visto afectada como consecuencia de las medidas adoptadas en el Real Decreto 926/2020 y el Real Decreto 956/2020, del 3 de noviembre, por el que se prorroga estado de alarma hasta el 9 de mayo de 2021.

Dichas normas han sido publicadas en el Boletín Oficial de Gipuzkoa núm. 147, de fecha 4 de agosto de 2021.

Se ha observado la necesidad de modificar el alcance de las subvenciones, con el fin de que las ayudas que ofrece el ayuntamiento alcancen a todas las empresas que tienen establecimiento en Hondarribia y cuya actividad sea la hostelería.

En concreto se pretende que la ayuda llegue no solo a las personas trabajadoras por cuenta propia o autónomas y empresas que se han visto afectadas por las órdenes de cierre de discotecas y de los establecimientos y servicios de hostelería y restauración dictadas por las autoridades de la CAPV desde el mes de agosto de 2020 y cuyas actividades estén clasificadas en los epígrafes 671, 672, 673, 676, 681, 682, 683, 684, 686, 687, sino también a todas aquellas empresas cuyas actividades estén clasificadas en el epígrafe 677.9 de «Otros servicios de la alimentación propios de la restauración» y en el epígrafe 685 de «Alojamientos turísticos extrahoteleros».

Por todo ello esta Alcaldía

RESUELVE

*Primero.* Aprobar la modificación de las normas para la concesión de subvenciones destinadas a la reactivación económica local en el sector de la hostelería para hacer frente a las consecuencias derivadas del impacto generado por la crisis producida por la Covid-19.

Las modificaciones son las siguientes:

1. Modificar el artículo 3 «Personas y entidades beneficiarias» e incluir como beneficiarios a las personas trabajadoras por cuenta propia o autónomas y empresas cuyas actividades estén clasificadas en el epígrafe 677.9 de «Otros servicios de la alimentación propios de la restauración» y en el epígrafe 685 «Alojamientos turísticos extrahoteleros».

*Segundo.* Proceder a la publicación de estas modificaciones en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, así como en la página Web del Ayuntamiento y en la Base de Datos Nacional de Subvenciones.

*Tercero.* Dar cuenta de la presente Resolución al Ayuntamiento Pleno al efecto de lo dispuesto en el artículo 21.1.m) de

EK\CV GAO-I-2021-05731

Legearen 21.1.m) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, eta ebazpen honen bidez arautzen diren diru-laguntzen lerroa sartzea berresteko.

Hondarribia, 2021eko abuztuaren 27a.—Txomin Sagarzazu Ancisar, alkatea. (5731)

la Ley 7/1985 de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, así como para ratificar la inclusión de la línea de subvenciones objeto de regulación mediante esta Resolución.

Hondarribia, a 27 de agosto de 2021.—El alcalde, Txomin Sagarzazu Ancisar. (5731)